



BEZEROEN SEGMENTUA

Gure produktua batez ere 12 eta 35 urte bitarteko gazte ikasleei zuzenduta dago, talde honetan ikusten delako mugikorraren erabilera eta mendekotasun-mailarik handiena. Segmentu honetan sartzen dira:

- DBH eta Batxilergoko ikasleak.
- Lanbide heziketako ikasleak.
- Unibertsitateko ikasleak eta gazteak.
- Oposizioileak edo prestakuntza-prozesuan daudenak.

Bestetik ere, helduek edo mugikorrari adikzioa dioten pertsonak erabili dezakete. Mugikorra gutxiago erabiltzeko eta produktibitatean edo lan pertsonalean hobeto zentratzeko.

Gure bezeroek normalean arazo hauek dituzte:

- Mugikorra egunean ordu askotan erabiltzen dituzte (sare sozialak, jokoak, TikTok, etab.).
- Ikasketan edo lanean kontzentrazio arazoak izan ditzakete, notifikazioen eta pantailaren distrakzioengatik.
- Auto-kontrola hobetu nahi dute (ikasteko, lan egiteko, irakurtzeko, ondo lo egiteko...).
- Teknologia erabiltzera ohituta daude, baina soluzio sinple eta praktikoak baloratzen dituzte, erabilera intuitiboa dutenak.

Hasieran, gure produktua Euskal Herrian merkaturatzea aurreikusten dugu, ingurune hurbilean bezeroen erantzuna eta erabilera-ohiturak hobeto ezagutzeko. Ondoren, arrakasta eta eskariaren arabera, salmenta Espainiako estatu osora eta, epe luzera, Europa mailara zabaltzea da gure helburua.

Egunerokoan, gure produktua bereiziki ona da arlo hauetan:

- Eskola eta institutuetan, ikasgelan edo etxean ikasten ari diren gazteentzat
- Unibertsitate eta liburutegietan, kontzentrazio handia behar duten ikasleentzat
- Etxean, mugikor-denbora murriztu eta lo-orduak errespetatu nahi dituzten gazte eta helduentzat